BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

2770

AGINDUA, 2014ko maiatzaren 15ekoa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez Ogasun eta Finantzetako sailburuari eskuordetzen baitzaio Segurtasun Sailaren menpeko administrazio-eraikinak goi- eta behe-tentsioko energia elektrikoz eta gas naturalez hornitzeko kontratazioa, 2015. eta 2016. urteetarako.

Baliabide Orokorren Zuzendaritzari dagokio kudeaketa zuzeneko eraikinetan orokorrean erabili behar diren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzari egozten zaizkion gai eta zerbitzuak kontratatzea. Izan ere, halaxe dago ezarrita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren V. Kapituluan eta lehen xedapen gehigarrian eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuaren 12.d) artikuluan (2013ko apirilaren 18ko EHAA, 74. zk.).

192/2013 Dekretuaren 12.a) artikuluak ere zuzendaritza horri egozten dio era zentralizatuan eskuratu behar diren ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeko prozedurak garatzea.

Gaur egun uste da zerbitzuen kudeaketa hobetzen eta gastu publikoa arrazionalizatzen laguntzen duela Baliabide Orokorren eskumenekoak diren eta modu zentralizatuan kudeatzen diren eraikinen, Ogasun eta Finantza Saileko gainerako eraikinen eta Eusko Jaurlaritzako gainerako sailetako eta haien erakunde autonomoetako eraikinen goi- eta behe-tentsioko energiaren eta gas naturalaren hornidura modu zentralizatuan kontratatzeak.

136/1996 Dekretuaren 19. artikuluak ahalbidetzen du Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren eskumenak kudeaketa zentralizatua ez duten bestelako eraikinetara zabaltzea. Zabaltze hori honela gauzatzen da: hitzarmen bidez, administrazio-klausula zehatzen pleguetako aurreikuspen espezifikoen bidez, edo Herri-administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak jasotzen dituen formulen bidez.

Aipatutako eremu hori energia elektrikoz eta gas naturalez hornitzeko kontratua modu zentralizatuan burutzeko formula egokia aurreikusita dago azaroaren 26ko 30/1992 Legean –Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio-prozedura Erkidearenean–, hain zuzen ere eskumenak eskuordetzeari buruzko 13.1 artikuluan. Honela xedatzen da hor:

«1.– Herri-administrazioetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzan eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira, nahiz eta bata bestearen mendekoa ez izan, edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden zuzenbide publikoko erakundeetakoak badira».

Hori dela-eta, Segurtasun Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuaren 4.2.b) artikuluak (2013ko apirilaren 18ko EHAA, 74. zk.) Segurtasuneko sailburuari ematen dizkio kontratazio-organo izateak berekin dakartzan funtzioak, betiere, dekretu horrek funtzio horiek beste organo batzuei esleitu ez badizkie. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

I.– Ogasun eta Finantzetako sailburuaren esku uztea eranskinean adierazten diren eraikinak 2015 eta 2016an goi- eta behe-tentsioko energia elektrikoz eta gas naturalez hornitzeko kontratazioa egiteko eskumena.

Eskuordetzea Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak jasotzen dituen eta kontratuari ezartzeko diren gaietara zabalduko da.

– Kontratua prestatzea (II. liburua).

– Kontratua esleitzea (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

– Administrazioaren eskumenak, aldaketa, iraungitze, lagatze eta azpikontrataziorako IV. Liburuko, I. Tituluko, I. Kapituluan oro har aurreikusten direnak, eta hornidura-kontratuetarako IV. Liburuko, II. Tituluko IV. Kapituluan berariaz aurreikusten direnak.

– Kontratua formalizatzea (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

II.– Eskumena ematen duen organoaren baitan jarraituko dute kontratazio-organoari dagozkion gainerako eskumenek, eta, bereziki, egindako zerbitzuen betetzeari onespena emateko eta euren ordainketa agintzeko eskumenek.

III.– Izenpetu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eskuordetzea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 15a.

Segurtasuneko sailburua,
ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRONIZ.

ERANSKINA

Goi-tentsioko energia elektrikoa, Segurtasun Sailaren menpeko eraikinak:

Goi-tentsioko hornidura-gunea	Herria	Lurraldea
Portal de Foronda, z/g, behea	Vitoria-Gasteiz	Araba
Madrid-Irun errep., 35. km, behea, 1; 01192	Elorriaga	Araba
Larrauri Mendotxe, 18, behea	Erandio	Bizkaia
Iurreta 14, behea, 1	Iurreta	Bizkaia
Lehendakari Agirre, 44-1, behea, 1	Bilbao	Bizkaia
Igerobi bidea, 25, behea 1	Oiartzun	Gipuzkoa
Berroci, 3, behea 1	Bernedo	Araba
Uribarri 1, behea 1	Basauri	Bizkaia
Ornilla doktorea, 1-1, behea 1	Txurdinaga	Bizkaia
Zumalakarregi hiribidea, behea 2	Laudio	Araba
A-1 autopista, 7,7 km	Erriberabeitia	Araba
Cendeja auzoa, 11, behea 2	Muskiz	Bizkaia
Zaldupe auzoa, 3, behea 2	Ondarroa	Bizkaia
Infanta Kristinan kalea, 28, behea 2	Ondarreta	Gipuzkoa
Santa Klara plaza, 3, behea, 1	Errenteria	Gipuzkoa
Latxunbe Berri, 34-2, behea 1	Hernani	Gipuzkoa
Bidasoa kalea 13, behea	Irun	Gipuzkoa
Errepide nazionala, 140. km 35,6	Vitoria-Gasteiz	Araba
Ibargaray hiribidea, 56, behea	Bergara	Gipuzkoa
Errepide nazionala, -1. km 352, 0, behea 1	Vitoria-Gasteiz	Araba

Behe-tentsioko energia elektrikoa, Segurtasun Sailaren menpeko eraikinak:

Behe-tentsioko hornidura-gunea	Herria	Lurraldea
Foru kalea, 11-bis	Agurain	Araba
San Raimundo, 1-1, Behea 1	Laguardia	Araba
Olagibel 34, behea 5	Vitoria-Gasteiz	Araba
San Pedro, 8-1 behea	Maeztu	Araba
Virgen de Gracia, 2, behea 1	Balmaseda	Bizkaia
Juan Sebastian Elkano 22, behea 5	Barakaldo	Bizkaia
Okango 202, behea	Berriz	Bizkaia
Kurutziaga 25, behea 1	Durango	Bizkaia
Gernikako Arbola 1, behea 1	Erandio	Bizkaia
Zabalea 25, behea 1-A	Galdakao	Bizkaia
Carlos Gangoiti, 20, behea 1	Gernika-Lumo	Bizkaia
Aiboa, 13, behea 1	Getxo	Bizkaia
Gran Via Don Diego Lopez, 81, 1. ezk.	Bilbao	Bizkaia
Maria Diaz de Haro, 2, behea 1	Bilbao	Bizkaia
Maria Diaz de Haro, 6Y 8, behea 2	Bilbao	Bizkaia
Astillero plaza, 1, behea esk.	Plentzia	Bizkaia
Correos, 39	Portugalete	Bizkaia

Behe-tentsioko hornidura-gunea	Herria	Lurraldea
Andres Jauregibeitia 4, behea 1	Sestao	Bizkaia
Pedro Martinez Artola 2, behea 3	Bilbao	Bizkaia
Pedro Egaña kalea, 9, behea 1	Donostia	Gipuzkoa
Dolariaga 25, behea 1-A	Bermeo	Bizkaia
Basotxo, 2, behea 1	Lekeitio	Bizkaia
Juan Jose de la Quintana, 2-B, behea 2	Santurtzi	Bizkaia
Gipuzkoa Etorbidea, 2, behea 1	Arrasate	Gipuzkoa
Beidazar kalea, 1, behea 2	Azkoitia	Gipuzkoa
Senpere kalea, 8, behea 2	Beasain	Gipuzkoa
Otaola hiribidea, 3, behea 7	Eibar	Gipuzkoa
A-8 autopista, 62,5 km, behea	Mendaro	Gipuzkoa
Santa Klara kalea, 2-B, behea, 1	Tolosa	Gipuzkoa
Gipuzkoa kalea, 46, behea 1	Zarautz	Gipuzkoa
Geltokien Enparantza, 5, behea 6	Zumarraga	Gipuzkoa
Errepide nazionala, 1, 440,5. km	Irura	Gipuzkoa
Errepide nazionala, I, 416.5. km	Olaberria	Gipuzkoa
Errepide nazionala, 1, 42.1. km	Ordizia	Gipuzkoa
A-8 autopista, 10.0 km	Amorebieta	Bizkaia
Bizkai, 38-1	Galdakao	Bizkaia
A-8 autopista, 6,5 km, behea	Elgoibar	Gipuzkoa
A-8, 1,0 km.	Oiartzun	Gipuzkoa
Aginaga auzoa, 66-prox, behea	Usurbil	Gipuzkoa
Sorabilla auzoa, 230-prox	Andoain	Gipuzkoa
Donostia-Kantabria autopista (A-08), 125.5 km BA	Valle de Trápagara-Trapagaran	Bizkaia

Gas naturalaren hornidura-guneak, Segurtasun Sailarenak.

Gasteizko ertzain-etxea.	Portal de Foronda, z/g, behea	Vitoria-Gasteiz	Araba
Txurdinagako CGTE	Ornilla Doktorea, 1-1	Bilbao	Bizkaia
Oiartzungo zentrala	Igarobi bidea, 25.	Oiartzun	Gipuzkoa
Bergarako ertzain-etxea	Ibargarai hiribidea, 56	Bergara	Gipuzkoa
Eibarko ertzain-etxea	Otaola hiribidea 3	Eibar	Gipuzkoa
Tolosako ertzain-etxea	Santa Klara 2-B	Tolosa	Gipuzkoa
Zarauzko ertzain-etxea	Gipuzkoa 46	Zarautz	Gipuzkoa
Zumarragako ertzain-etxea	Geltokien Enparantza 5	Zumarraga	Gipuzkoa
Durangoko ertzain-etxea.	Kurutziaga 25	Durango	Bizkaia
Galdakaoko ertzain-etxea.	Zabalea, 23-25	Galdakao	Bizkaia
Gernikako ertzain-etxea.	Carlos Gangoiti, 20	Gernika-Lumo	Bizkaia
Erandioko zentrala	Larrauri Mendotxe bidea 18.	Erandio	Bizkaia
Iurretako basea	Arriaundi auzoa, 1	Iurreta	Bizkaia
Deustuko ertzain-etxea.	Ibarrekolanda 9	Bilbao	Bizkaia
Laudioko ertzain-etxea.	Zumalakarregi hiribidea, 66	Laudio	Araba